


# Euskal Herria

HISTORIA ETA GIZARTEA  
HISTORIA Y SOCIEDAD



## Euskal musika

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

### MUSIKA, ZER DA?

Izenburu honekin hemen ematen dudana eduki oso zabala da: Euskal Herrian musikari dagokion guztia, hain zuzen kronologiaren bide-tik eta sinkroniaren ikuspenetik gaia erabiliaz. Musikaren historia aztertuko da noski, baina geldiune batzu egin beharko dira noiz behinean une edo denboraldi garrantzitsuetan sortzen diren problemak, hartzen diren bideak, zio eta ondorenak aztertzeko. Gizadiaren historia eta Artearena —Musika barnean delarik— gizonen eta egiteen eten gabeko iraupen bat da, baina gorputz bizi batek krisialdi ziklikoak ditu eta gizonen eta herrien izatearen adierazpen diren arteak ere krisialdi-tan arrotzatzen dira. Beraz bidegurutzeetako hausnarketak sinkronikoki ikertu beharko dira historiarren haria ondo ulertzeko.

Musika da izatez gure gaia. Baina, zer da musika? Gizadiaren historian zehar musikaren kontzeptua izango da seguraski, beste arte guztien artean, gehien bilakatu dena. Historiaurreko lehen adierazpen ermittikoetatik gaur egun entzuten dugun laborategiko musikararte, hainbat aurrerabide, iraultza eta garapen izan dira. Musikaren kontzeptuak ere bere krisialdiak izan ditu.

Berrogei mila urte duela bizi da gizona leho-reen eta hizkuntza baino lehen sortu zen hitz soila ez zuen gizonak erabili Magdalenaldia arte, hau da, duela hamalau edo hamabost mila urte. Eximeno eta Spencer jakintsuek adierazi zute-nez, Magdalenaldia burutu arte ez zen musika kantatua sortu, hizkuntzak barnean daraman doinuaren garapena da musika kantatua eta. Baina kantua sortu orduko bazegoen musikaren beste osagai bat, hots, erritmoa. Geroagoko sorkaria da soina, eta hirugarren bilakaera batetan, historia barruan hain zuzen, soinugailuen berezitasuna eta kolorea agertuko dira. Bilakabide luze honetan herriaren ondarea da musika, ez da oraindik egileen musika landua sortu eta.

Herriarena da oraindik musika, ahots baka-rez kantatzen dena eta idatzi gabea. Musikaren etorkizunerako iraunkorra izango den zimentarria VI. mendean izango da jarria: ahots bakar-reko kantua Elizaren Liturgian txertatuko du Gregorio Handia Aita Santuak eta horrela zabalduko da gure mendebaldean monodi sistema hau. Aurre-rantzerako bi oinarri garrantzitsuak jarriko dira garai honetan: alde batetik orain arte neurri gabe-ko den ahots musika bultzatzen da, baina beste-tik, musika landua sortzen zaigu herriaren girotik aparte, fraideek abadexuetan kantu gregoriarra asmatzen ari baitira. Arautegi tekniko batekin lotzen zihon pixkanaka musika landua eta arauen artean idazkera berezi bat asmatu zen orduan: libreki idazten ziren neumak edo zeinuak marra baten inguruan idazten ziren eta XI. mendean Arez-zoko Gidok lau marretan (tetragraman) sartuz, betirako izan den kantu gregoriarren idazkera asmatu zuen. Geroago sortuko da guk orain ezagutzen dugun bost marradun pentagrama.

Herriak bere bidetik jarraitzen du baina musi-ka gregoriarren eragipena ezin du ukatu: Euro-pako Herriak gehienak herri musikaren oinarri-

tzat kantu gregoriarra dute. Abadetxeetan lehenengo eta elizetan gero zerabiltzen gregoriar kutsuzko musika kaleratu eta laikotu zen jokulari eta trobalarren bitartez. Gilem Machaut (1300-1377), Iruñeko Gortean ere egon zenak, *Ars Nova* izenarekin ezagutzen den iraultza bultzatu zuen, musikari arintasuna eta hedadura ematen ziona, eta hurbil zegoen Polifoniari bide berriak zabalduko zizkiona.

Ikusten dugunez, bi bide desberdinetatik doa musika Erdi Aroan hasita: arau gabeko musika, ahots kantua, egiten dihardu herriak, eta oinarri-ko arau batzu errespetatzen dituen musika landua egiten ari dira polifonistak. Bi musika moeta horien kontzeptua desberdina da noski. Solas, amodio edo saminetarako egiten du kan-tu herriko kantariak, inolako loturarik gabe, artea-ren susmorik ere ez duelarik. Polifonistek ordea artearen kontzientzia eta lotura dute. Hauek egi-ten duten musikari dagokio Juan Jakobo Rous-seauk (1712-1778) eman zuen definizioa: "entzumenaren atseginerako soinuak ederki kon-binatzen dituen artea da musika". Hedonista eta subjektiboa da benetan definizio hau. Rousseau berari, esaterako, ez zitzaion gustatzen Rameau-ren (1683-1764) musika, nahiz eta frantziar hau izan Harmoniaren aztertzailerik handiena.

Hurrengo mendean gure Hilarion Eslaba nafa-rak musikaren beste kontzeptu bat ematen digu definizio berri batekin. Rousseauena mantenen-tzen du 1837an *Solfaketaren Metodoa* lehenda-biziz argitaratzen duenean. Baina bigarren ez ikas-bide hori kaleratzen duenean, orduarteko hedonismoa alde batera utzi, kontzeptu tekniko eta objektibo bat ematen digu (1855): "Soinuak denboraz neurtuak konbinatzen dituen artea da musika". Eslabaren eskolaren ondortik sortzen da Erromantismoa Euskal Herrian. Eta Erromantis-moarekin batera beste elementu bat ere txerta-tzen da musikaren kontzeptuan: orduarte baz-tertuta zegoen herri-musikak gero eta balio gehia-go hartzen du musikagileen lanetan.

Baina arauak eta teknikak pentagrama barruan atxilotzen dute musika eta laster nabari-tzen dira arrakalak musikagintzan. Gregorianoa-ren zortzi moduen aberastasunetik bi tonalitate bakarren txirotasunerara heldua zen XIX. mende-ko musika, eta krisialdi honetatik irtezeko Wagne-neren ondorengoei eragin zuten iraultza: Debussy, Stravinsky, Schönberg eta halako beste batzuen eraginez, gure Ravel tartean zelarik, aldatzen zihon musikaren kontzeptua. Eta lokarri gabeko soi-nuak dira orain musikaren gaiak. Baina ez Zarli-nok 1558an finkatu zuen eskala temperatuan dauden tonu erdiko soinuak, baizik eta lehena-goko tonu laurdenetako soinuak, hots, eskala kromatikoa daudenak. Gizadiak lehen denboral-dian zerabiltzanak. Hortik aparte, ahots eta soi-nugailuen soinuetatik aparte noski, naturaren soi-nuak eta gure mundu modernoarenak ere erabilgarriak dira gaurko musikagintzan, ozenta-sunaren bizitasuna eta tinbrea ere bilatuz. Soi-nuak elkar lotzeko ez da gai azken berrehun urteetan zehar erabilia izan den harmonia: Esla-ba, Arin, Pagolaren metodoak —euskaldunenak bakarrik aipatzearen— ez dute ezertarako balio gaurko musikagintzan, Guridi, Usandizaga, Gabio-

la, Almandoz, Donostia eta beste batzuk Parise-ko Schola Cantorum zelakoan egindako ikaske-tak ere antigoalekoak dira gaurko musika munduan. Eta gertatzen dena zera da: musikegi-le bakoitzak daukala musikaren kontzeptu bere-zia. Gizonaren izpiritua zirikatzea da musikaren helburua. Stockhausenek dioenez: "Izpiritua-ren 'medium' bat da musika eta 'medium' etatik zolie-na, gizonaren muineraino sartzen dena, izpiritua dardaraz jariz kreatzailearekin elkartera bultzatuz".

Musika landuaren kontzeptua historian zehar nola aldatzen joan den ikusi dugu. Euskal Herri-ko musika landua, mendebaldekoan txertatua izan denez, bide berdinetatik gaurkotu zaigu.

### HERRI-MUSIKA EUSKAL HERRIAN

Euskal musikaren historian bigarren hari bat solte geratu zaigu, hots, herriko musikaren haria. Herriak kantuei eta soinugailuen musikari buruz izan duen kontzeptua ez da hain aldakorra izan. Herriaren musikagintza ez da adimenaren proze-su bat, bihotzarena baizik; ez da kontzeptuala, sentikorra baizik. Herriko melodia bat kantatzen edo txistua jotzen denean, mementuari dagoz-kien doinuak erabiltzen dira eta kito. Herriaren musikagintza funtzionala da. Dena den, historian zehar izan ditu beste kultura batzuen eraginak eta musika landuaren bultzadak, gregorianotik hasi eta XIX. menderarte. Erromantismoaren garaian abertzaletasuna musika arloan sartu zenean, musika landuaren goi mailara iritsi zen herriko musika eta ia ehun urtetan zehar (1850-1950) uztarturik izan dira biak.

### Euskal musika

Ez goaz hemen musika orokorraren historia idazten, euskal musikarena baizik. Baina esanda-koak beharrezkoak izan dira euskal musikaren historia hobeto ulertzeko, mendebaldeko musi-ka-ren atal bat baita gure musika. Zer da euskal musika? Oso simplea eta begi bistakoa da lehen erantzuna: *Euskal Herrian* egiten den musika, hau da, euskaldunek egiten duten herri-musika. Eta musika landuaren alorrean, Euskal Herriko semeek egiten dutena, *euskal* musika ote da? Zailagoa da galdera honi eman behar zaion erant-zuna, asko baitira aztertu behar diren kasuak, eta asko kasu bakoitzean emandako eritziak. Eus-kal textu bati josita dagoen melodia ez da beti euskal musika eta alderantziz erdal textu batekin doan doina izan daiteke euskal musika. Textua ez da beti epaile arazo honetan, doinuak berak daramatza barnean euskal musika ahal izateko baldintzak. Eta baldintza hauek betetzen ez dituz-ten musikalanak, ez ote dira euskal musika? Poli-fonia, Barroko eta Klasizismo garaian euskal semeak musikaturako lanak, ez ote dira euskal musika? Oraingo musikagintzan, melodia gabe-ko musikalanak, ez ote dira euskal musika? Behin betiko erantzun bat eman orduko ikusi beharko da ea beste herri batzuen musikekin bereziga-riarik dituen tankera honetako musikak. Dena den, Euskal Herrian egindako musika denez, Eus-

kal Herriaren ondasun bat da eta Euskal Herriaren musika, noski. Herri baten musika hizkuntzaren garapena dela uste dutenentzat, euskalduna izan beharko da euskal musika sortzeko (hizkuntz erizpidea). Beste batzuentzat endea batekoa izatea nahikoa da arraza horri dagokion musika egiteko (enda erizpidea). Beste eritzi batzu ere izan daitezke, musika landuaren arazoa aztertzen denean.

Baina mendetan zehar herriak egin duen musikak baditu ezaugarri bereziak. Gure musikaren berezitasuna aspaldidanik eztabaidatua izan da. Aburu sail bi bana ditzakegu: 1) euskal musika berezia dela diotenena, berton jaioa eta hazitakoa, keltar eta gregorianoaren kutsua izanaren. 2) Berezitasun hau ukatzen dutenena. Aita Donostia, Azkue, Uruñuela, Madina, Otaño, Santiago eta beste musikologo batzuk egindako ikerketen ondoren, lehen tesia onartu behar delakoan gaude.

## Euskal musikaren bereizgarriak

Inguruko kulturetatik gure musika, gure doinuak bereizten dituzten ezaugarriak, zeintzuk dira? Lehen azpimarkatu behar dena zera da: euskal musikaren batasuna, hizkuntzak, ohiturek, bizi-moduak, lurrak eta abarrek emandako batasuna. Eta aintzinako kutsua daukala gehienetan euskal musikak esan dezakegu: gure herri kantuetatik %12, eskala ezosoetan ezarrita daudela zeritzan Uruñelak. Bestalde, Greziako kantuak bezala, euskal kantu asko enharmonikoak dira, hau da, jatorriz kantatzeko tonu laurdenekin erabili behar dira. Ostera, gregorianoan gertatzen den bezala, euskal kantu asko diatonikoak dira, tonu osoekin kantatu behar direnak. Baina gregorianoaren badago desberdintasun bat: gure herri kantuak silabikoak dira eta ez melismatikoak, hots, silaba bakoitzari zeinu edo nota bat dagokio. Beraz, Greziatik hartu zituen Euskal Herriak, edo Greziak bezala asmatu zituen kantuak moldatzeko eskala moeta bi: *kromatikoa* (tonu erdiekin osatua) eta *enharmonikoa* (tonu laurdenekin osatua). Geroago gregorianotik hartu zuen eskala *diatonikoa* (bost tonu osoko tarteak dituen eta bi tonu erdikoak, modu bakoitzean toki desberdinean kokatuak).

Melodia, erritmoa eta tonalitate izaten dira musikologoek estudiatzen dituzten ezaugarriak herri baten musika inguruetaikoengandik bereizteko. Euskal musikari dagokionez, hauek dira ezaugarri horien xehetasunak:

### Melodia

Berdin kantu edo dantza-doinuetan, gure musika melodikoa da. Baina batzuetan testu desberdinak kantatzeko melodia berdina erabiltzen da eta besteetan testu berdinak tokiko doinu desberdinak ditu. Doinurik gehienak lasaia dira eta Aita Donostiarekin ados datoz musikologik gehienak zera aitortu: ia kantu guztiak *Andante* mugimentuan erabiltzen direla. Ikusi dugunez, badaude melodia arkaikoak eskala ezosoetan, kromatikoen eta enharmonikoen kantatzen direnak; baina gehienak eskala diatonikoetan ezarriak dira, bai gregorianozko modu zaharretan, baita ere gaurreko modu bi bakarretan, hots, modu alai edo ilunean. Melodiaren arkitekturari dagokionez, hiru zatitan banatzen da sarritan doina: A, B, A, lehen eta hirugarrena erdi berdinak eta bigarrena desberdina eta gorago kantatzen dena direlarik.

### Erritmoa

Beharrezkoa da erritmoa musikan, baina moeta biko erritmoak daude: askatua eta neurtua.

Denetarik erritmoak daude euskal musikan. Gregoriano antzeko erritmo askatua duten melodiak baditugu (Belatsa, Arranoa bortietan), oso ederak Charles Bordesek aitortu zuenez. Aintzina erritmo askatuak izan ziren doinuak, konpasaren lotura eta neurria jasan zuten geroago. Geroztik asmatutakoak konpasaren neurri barruan sortu ziren eta orain gehineak neurtuak ezagutzen ditugu. Erritmo neurtua duten kantuen eta dantza-doinuen artean, badaude erritmo irregularreko konpasa dutenak, hots, 5/8 (zortzikoa), 7/8 eta 9/8. Zortziko hitza aipatu dugunez gero, berezitasun bat egitea komeni da: bertsolaritzako bertso molde bat da zortzikoa eta kantatzeko konpasaren neurri bat ere bada zortzikoa. Zortzi lerro dituen bertsoa da lehen eta bost kortxea dituen konpasa bestea. Bertsolarien zortzikoa kantatzeko zortziko (5/8) konpasa edo besteren bat erabili daiteke. Konpasari dagokionez, Euskal Herrian bakarrik erabiltzen zen erritmoa zela uste zuten XIX. mendean. Baina mito hau apurtzeko esan dezagun Azkuek bere Kantutegian bildutako 1001 kantuetatik 55 bakarrik direla erritmo honetan kantatzekoak eta Hego Euskal Herrian bakarrik aurkitzen direla, Lapurdin eta Zuberoan *rara avis* baitira. Dena den, zortziko erritmodun kantu ederrak dira honako hauek: *Umundik*, *Urso txuria*, *Txalopin txalo*, *Arti zarra zeruan* eta besteren bat. Erritmo erregularreko kantak ere baditugu ugari, gehien bat 2/4, 3/4 eta 6/8 konpasetan kantatzen direnak. Baina, nahiz eta neurri erregular batetan kantatu, arraroa da kantu batek konpas bakar bat erabiltzea, bi edo gehiago nahastzen baitira kantu bakoitzean zehar.

### Tonalitatea


Mendealdeko musika-sisteman dago txertatua gure euskal musika. Ekialdeko sisteman muga, noski. Ikusi dugunez, eskala diatonikoa da Mendealdeko musika sisteman ardatza, eta XVIII. mendetik bitonala. Nahiz eta gaurko euskal kanturik gehienak bitonalak izan, hots, tonu alai edo ilunekoak, badaude oraindik gure kantutegietan eta ahozko tradizioan gregorianozko moduen arabera kantatzen direnak eta sarritan musikan ikasiak ez diren kantariak, bertsolariak esaterako, gregorianozko moduetatik ihes egin ezinik aurkitzen dira. Baina gaur egun, bitonala da gure musika. Eta hemen beste mito bat hautsi behar da: gure kantutegian modu ilunekoak, tristeak, direla kanturik gehienak zioten; baina sarritan egia bada gai alaiak modu ilunetan kantatzen direla, gure kanturik gehienak alaiak direla aitortu behar dugu.

Hauek dira gure herri musikaren bereiztasunak eta hurrengo lerroetan emango dugun historien gaia.

## EUSKAL MUSIKAREN HISTORIA

### Historiaurrea

Gure musikaren hasieran ez zen Tubal izan lehenengoa. Hizkuntzarekin batera hasten da euskal musikaren historia, euskarak daraman doinuaren garapenak ematen baititu lehendabiziko kantuak. Musika idatzia berandu datorrigunez, ez daukagu sasoi honetako agiririk. Baina soinu-gailuen agerpenaren lekuko soinu-gailu beraik dira: mendealdeko artearen kronologiak eskatu baino lehen badugu Iparraldean, Isturitzeko haitzuloan Passemardetik aurkitu zuen hiru zulodun flauta, gure lehen txistua, hegazti baten hezurrez egina. Hoge mila urtetik gora ditu soinu-gailu honek eta beste kulturetan dauden antzerako



Saint-Germain-en-Layeko Museoa dagoen historiaurreko txistua, hegazti hezurrez egina. Mendealdeko kulturetan aurkitua izan den musikagailurik zaharrena.

soinu-gailuak baino zaharragoa dugu gure txistua hau, besteetan Azilaldian agertzen baitira, hamar mila urte duela gutxi gorabehera. Euskal kulturaren beste soinu-gailu bat Gernika inguruko haitzuloan aurkitu zuen Barandiaranek, Azilaldiko korneta bat hain zuzen. Soinu-gailu hauek izango ziren, beharbada, Estrabonek gure artean ikusi zituenak, *flauta* eta *trumpeta*. Isturitzeko txistua Saint-Germain-en-Laye-ko Museoa gordetzen da eta Atxetako korneta Bilboko Museoa.

Garai honetakoak ziren Greziako *Apoloren Himnoa* eta *Katolophyromai kantua*, gure aintzinako zortzikoekin, lehenengoa, eta Berrizko Ezpadantza eta Oñatiko Banakoarekin, bestea, zeri-kusirik dutenak, Azkue eta Madinaren ustez, behintzat. Garai honetakoak dira baita Mutildantza eta Edate Dantza: Estrabonek aipatutako *Ardo-Dantza* ote dira? dio Caro Barojak. Nolanahi Historiaurreko musikaren agerpenak dira, bana-ka edo taldeka azalduak. Taldekako musika agertzen zaigu Arronizko Harrian, Iruñea-inguruan, orkestako zuzendari eta guzti. Erromaren garai-koak dira Calahorrako bi seme, orduan euskaldunak, orduko musikaren berriak ematen dizkitutenak: Kintiliano eta Prudentzio.

Historiaurrean Euskal Herriak bere lur gainean bi inbasio ikusten ditu: keltarrena eta erromatarrena. Lehenengoak gure jatorrizko musikan bere kutsua lagatzen du eta ordutik hona gure musikak beste Europako kantu keltarrekin antzik badu. Erromatarren inbasioa, oster, politikoa izan zen eta ez zuen utzi hondarririk gure musikan. Eta honela, gure jatorrizko musika, greziar eta keltarren kutsua onarturik, sartzen da historiaren ateetatik.

### Erdi Aroa (450-1450)

Seigarren mendean hasi zen Kristautasuna Euskal Herrian pixkanaka sartzen eta berarekin batera mendealdean zabaltzen zegoen gregorianoa. Bata eta bestearen aurka jarri ziren lehen aldietan orduko euskaldunak: VII. mendean, kronikak diotenez, San Amandoren aurka jarri zen bertsolari bat. Baina azkenean oraindik berriak ziren elizak, gregorianoa onartu beharrean aurkitu ziren. Gertaera honen ezaugarritzat XI. mendeko kantoralak geratu zaizkigu orduko eliza zaharretan.

Sasoi hartan Iruñean zegoen Euskal Herriko musikaren bihotza. Bertan aurkitzen dugu IX. mendean Leodegundia erregina zenaren eztaikantua. Abderraman II.aren jauregian zegoen Kalam kantaria ere euskalduna zen. Nafarroako Erregetxea zen orduko musikuen helburua, bai jokulari eta musikegile. Nafarroako Gortean ahozko eta soinu-gailuen musika egiten zen ugari eta orduko erregeen babespen gorteko musika hori handiro garatu zen. Giro honen erakusgarri dugu Champagneko Teobaldo I., 1234an Nafarroako Errege hautatu zutena. XIII. mende honek dugu Gonzalo Berzeokoa, orduko musikari buruz hainba berri ematen dizkiguna. Hurrengo mendekoa dugu Iruñean sortua izan zen Polifoni Eskola, *nota minima* delakoa (gaurko gure kortxe) asmatu zutena. Sorkari honekin hasi zen mendebaldeko musikan hain garrantzitsua izango zen *Ars Nova* aldia, Vitry eta Machaut frantsesek bultzatu zutena. Azken hau Nafarroako Karlos II.aren Gortean musikagintzan izan genuen. Erdi Aroan musika landuari amaiera ematen dion euskalduna Jose Antxorena da, 1436an Iruñean haurren musika-maisu zena.

Herri musikak ere badauka bere historia Erdi Aroan. Bertsolari edo jokularien izenak ezagutzen ditugu, honako hauek: Amaldeo Ursua (1412), Antxo Etxeleku (1424), Garzea Txurri (1428) eta abar. XV. mendean oñaztar eta garboatarren taldeak gudakatzeko zebiltzan hamaika erreketak eta hilketa Euskal Herrian zehar sortaraziz. Leloren kantua eta Altobizkarko kantua gezurrezkoak agertzen direnez gero, hor dauzkagu osteraren Beotibarko kantua (1321), Urrexolako kantua (1388), Akondako kantua (1390), Ahetzeko Andrea (1422) Milia Lasturkoaren Eresia (1429), Abendañoren kantua (1443), Arrasateko Erreketaren kantua (1448), Olasoren kantua (1450), Martin Bañezen kantua (1464), Salinasako Kondearen kantua (1471), Joan Lazkanoren kantua (1474) eta erdal liburu batetan aurkitutako Perutxoren kantua. Aldi hartan kantu hauek beren doinuak eduki arren, ez ditugu gaur egun ezagutzen. Baina aldi hartako hiru kantu heldu dira gure egunetara doinu eta guzti: Alos Torrea, *Urtsuak zazpi leiho*, eta *Berterretxeren Kantoria* (1434), Azkue, Donostia eta Salaberriren bildumetan aurki ditzaizkizunak. Euskal Herrian ezagutzen diren doinurik zaharrenak dira kantu hauek daramatzatenak.

Erdi Aroko musika giroaren lekukoak harriak dira, bestalde. Iruñea, Baiona, Tuter, Zangoza, Biasteri eta beste tokiak eliza eta monastegietan, musikari eta soinu-gailuen irudiak agertzen zaizkigu. Aita Donostia hasi zen halako monumentuen katalogo bat osatzen, baina denak bil-tzeko astirik ez zuen izan. Badira, zorienez, gaur egun bat baino gehiago katalogo honekin arduratzen diren ikertzaileak.

## Polifonia (1450-1600)

Nafarroatik iparralderantz abiatu zen XIV. mendean erdi aldiari *Ars nova* zelakoaren iraultza musikagintzan ahots eta soinu-gailuen bizitasun bat lortuz. Abiada honetan helden gara Erdi Aroaren azken urteetara, XV. mendean erdi aldiari. Aro Modernoa 1450 inguruan hasten denean, krisialdi bat sortzen da Europaren eta lehenengo musika tankerak eta teknikak alde batera uzten dituzte sasoiko musikegile eta teorikoek. Soinu-gailu bakarren edo ahots laguntzaileen musika egiten zen gortean eta herrietan; baina aurrerantzean soinu-gailuak baztertuko dira eta ahots bakarrek hasiko dira ozentasunaren mundua betetzen. Baina elizetako gregorianoaren monodia eta kantarien melodiatik polifoniara abiatuko dira musikegilek: gizonen hiru edo lau ahots desber-

dinetarako egingo dira denbora askotan musikalana. Franko-flamenkoak dira lehen urratsak ematen dutenak: Dufay, Ockeghem eta Josquin Des Pres, polifoniaren aita, 1521an hil zena.

Polifoniaren lehen garai honetakoa dugu Joannes Antxieta azpeitiarra (1463-1523) Errege Katolikoaren musika-maisua eta musikegile trebea, Flandesen tankera berria ikasi zuena eta jaioterrian hil zena. Gero etorriko dira Palestrina, Victoria, Guerrero, Lassus, etab. *a capella* tanke-razko polifonia musikakutako dutenak, Aita Santuak 1483an sortu zuen Capella Sixtinan egiten zen antzera. Victoriarren heriotzarekin (1611) amaitzen den aro honi Berbizkunde garaia deitzen zaio artearen munduan, baina musikari dagokionez hobe deritzat Polifoni aroa deitzea.

Aipatutako Polifoniaren iraultzarekin batera beste bat ere sortzen da musikaren munduan: iraultza teorikoa. Gafori italiarraren teorian aurka mugitzen dira Ramos Pareja eta Sptaro. Ondoren garrantzitsua izango du iraultzak eta 1558an Gioseffo Zarlinok emango digu gaur egun arte balio izan duen *eskala temperatua*, hots, musika guztiaren oinarria, pianoan eta organoan, esaterako, ikus dezakegun eskala. Iraultza honen partaide bat dugu euskaldunok, Gonzalo Martinez Bizkargikoa (1460-1530), azkoitiarra, Burgosek Kapel Maisua, eta teoria berrien defenda-tzailea.

Polifonia garai honetan baditugu Euskal Herrian hainbat musikegile; eta gure herri-rik kanpo ere badabilta hainbat euskaldun: Martin Ibañez Etxebarria, Juan Lopez Larrutaren, Juan Santxez Eskos, Juan Uriz, Andres de Sylva, Joannes Larrunbide, Prudenzi Nabarro, Domingo Matanza, Juan Artetxe Legaria, Hernando Isasi, Diego Albarado, Juan Arratia eta abar.

Herri-musikak bere bidetik jarraitzen du garai honetan, baina noizean behin gertatzen denez, badago sasoi honetan ere herri-musika eta musikegile landuen arteko hurbiltze bat. Polifonistek erabili zituzten gaiak eliz kutsukoak ziren gehienetan. Baina gai profanoak ere erabili zituen polifoniak, madrigalak, esaterako. Eta samitan polifonistek elizarako doinuak ahotsetarako musikaturerak, herri-rik hartzen zituzten kantuen doinuak. Hau da euskal doinu baten kasua: Joskin Des Pres famatuak *Una mousse de Bisquaye* bertsoen doinua erabili zuen Meza bat musikatzeko; amodiozko kantu honek euskarazko testua darama, "zoaz, zoaz, ordonarekin". Antxieta ere zortzioko erritmoa erabili zuen lan batetan. XVI. mendeko herri kantuek ezagutzen ditugu, doinu eta guzti gure egunetara helduak: *Jeiki jeiki*, *Txeru*, *Ozaze Jaurganien* eta besteren bat.

Txistulariak eta hauen laguntzarekin egiten ziren dantzak ere ezagutzen ditugu. Oñatiko Gorpuzti Dantzak 1541ean ezagunak ziren, eta orduko agiritan dantza taldeak agertzen zaizkigu Iruñean, Errenterian, Baionan, Markinan, eta abar. Izen eta guzti ezagutzen dugun lehen txistularia Lekeitioko Domingo Likona dugu (1573). Geroa-go azalduko zaigu Gipuzkoan Juan Goiburu txistularia 1610an akelarretan zebilelako Inkisizioak atxilotu zutena.

## Organugileak eta organulariak (1600-1750)

Europako musikaren historian Tomas Luis de Victoria polifonistaren heriotzarekin amaitzen da 1611an Berbizkunde garaia eta Barroko aldia hasten da. Beste krisialdi bat dugu muga honen inguruan, polifoniaren 150 urte bukatzea doazenean. Musikagintza landuaren munduan berriz indartzen dira soinu-gailuak, batez ere organua

eta orkesta, eta soinu-gailuen laguntzak betetzen duenez lehenengo ahotsen harmonia eta ozentasuna, ahots nahastuetarako egiten ziren musikalanak urritzen doaz eta berriz gainditzen da ahots bakarra. XVII eta XVIII. mendeetan sortzen den musika tankera berri honen arabera, Opera, Oratoria eta Kantata agertzen zaizkigu gaur. Claudio Monteverdi da aldi honetan lehenetarikoa, *Orfeo* opera estreinatzen baitu 1607an; eta Juan Sebastian Bach hiltzen denean (1750) bukatuko da Barroko aldia.

Aldi honetan ere Europako musikarekin parekatua doa Euskal Herriarena. Musika landuari dagokionez, Europako krisialdiaren ondorioak hemen ere nabaritzen dira. Urduñako Vicente Alemanek eraikitzen ditu organu berriak Markinan (1579) eta Azkoitian (1580). Baionako Bertran Boysollek konpontzen ditu Donostiako organuak. Beste frantsiskotar batek, Juan Bautista ditu Eibarko (1658) eta Arrateko (1667) organuak. Beste frantsiskotar batek, Juan Bautista Telleriak eraikitzen du Arantzazuko organu berria 1668an. XVII. mende hau organuegileen garaia da, eta gure herrian zehar eraikitzen dira hainbat eta hainbat organu, gehienak herriko semeek eginak: Joseph Etxebarria, Pedro Etxebarria, Ventura Txabarria, Jacinto del Rio, Nikolas Bristet, Zipriano Apezetxea, Antonio Bidarte eta abar. Hurrengo mendean ere organugintzan ari dira organugile trebeak: Jose Etxebarria, Pedro Libaona, Domingo Agirre eta abar. Baditugu ba organuak gure herrietako elizetan, garaigatik organuak barrokoak ditutak. XIX. mendean organu erromantikoak kanpotik ekartzen hasi ginenean, gure Barroko aldioko organu bitxiak deseraikitzen, ondasun historiko baliotsu bat kendu genion gure herriari.

Organuekin batera eliz kaperak ere antolatzen hasi ziren orduko katedralak, basilikak eta monastegiak. Barrokoari dagokionez, organuaren inguruan kantari eta soinu-gailuekin osatzen ziren kaperak. Baionako musikuen Elkarteak 1598koa dugu, eta hemen eta Iruñeko katedralan 1626an sortzen dira, arautegiekin, musika kaperak. Hamar urte lehenago, 1616an, sortua zen Arantzazuko kapera, soinu-gailu eta guzti. Bazuten zereginik organulari eta kapel maisuek.

Aldi honetan ezagutzen dugun tankera berriko lehenetarikoa lana Tafallako Migel Erreak Xabierko San Frantziskoren omenez musikatu zuena da, ahots bakar, koru eta orkestarako musikak, 1622an. Tafallako beste seme bat, Pedro izenekoa, Escorialeko Monastegian kapel maisua zen 1623an. Organulari eta kapel maisuen zerrenda luze bat daukagu Euskal Herriko semeekin osatua. Musikegile guzti hauek, nahiz eta Barrokoak eskatzen zuen tresna berria erabili, hots, ahots bakarra, korua eta soinu-gailu laguntzaileak, musikalanari dagokion arkitektura aldetik atzeratuta zebiltzan, bai konposaketa arloan, kontrapuntua zerabilten eta, baita harmonia arloan, 1716an sortu zen Vallseko Ezbaidan ikus dezakegunez. Barrokoak eskatzen zuen musika homofonikoa (ahots bakarra) ez zen erabili 1725 inguru arte.

Aipatutako zerrenda luze horretatik bost musikegile bereiztu behar ditugu. Jose Bakedano (1642-1711) Santiago de Compostelako kapel maisua, Joseph Zailorda (1688-1779) Bilboko Santiago Basilikan organulari eta kapel maisua, Juan Francés de Inbarren Etxebarria (1699-1767) Salamanca eta Malagako katedralen organularia, Joakin Oxinaga Iñurrieta (1719-1789), Bilbon, Burgoen eta Toledon organularia, eta denen gainetik, beharbada, Sebastian Alberio Añanos (1722-1756) Madrilén erregeen organularia zela-rik gazte hil zena.

Herri-musikari dagokionez, gero eta gehiago dira ezagutzen ditugun dantza-taldeak, txistulariak eta herri kantak. Eta Erdi Aroko antzertia opera antzekoa bihurtzen zaigu Pastoraletan. Non nahi agertzen ziren dantza-taldeak eta Zuberoan, Durangaldean eta Gipuzkoako Goiherren finkatzen dira betirako tankera bereziak eta dantza moetak. Juan Sasiain, Ziburuko Itsua, Patxi Zalutegi, Antonio Berrondo, Domingo Herrazkin, eta abar dira izenez ezagutzen ditugun txistulariak.

**Pastoralak XV.** mendean sortutakoak direla diosku George Herellek, Hipotesi honek badu sustrairik kantatzen diren doinuak arkaikoak baitira. Agirietatik dakiguna da Atarratzen antzertu zela Saint Jacques Pastoral 1634an. Sasoi berekoak dira Joannes Etcheberri kantatzeko idatzi zituen Noelak (1630) eta geroagokoak Nikolas Zubiaren Koplak (1691), Gernika eta ingurueta-ko Marijesiekin zerikusirik badutenak.

Herri kantak ere gero eta ugariagoak dira: *Goizian goizik* (1633), *Zazpi eihera badituz*, *Txorri kantatzaile*, *Urzo luma*, *Jaun baruak*, *Urtsuan hil*, *Txorinoa kaioan*, *Salbatore*, eta beste.

Orain arte latina zen liturgiaren hizkuntza eta musikalanetatik gehienak hizkuntza liturgiko honetan idatziak ziren, musikagilerik gehienak ere apaiz edo fraideak zirelako. Musiku landuen lanean 1705an agertzen da lehendabiziz euskarazko testu bat: "Tono al Nazmto. de N. S. Jesucristo", Zarautzeko Aian Aita Manuel Lekuonak aurkitu zuena. Gero, XVIII. mendeko bigarren aldiaren, ikusiko dugunez, gehiago dira euskara testu gisa daramaten musikalanak. Errondako kantak ere (Gabonetakoak, Santa Ageda, eta abar) aldi honetan jaioak direla aitor dezakegu.

## Erromantismoarako bidean (1750-1826)

Juan Sebastian Bach handiarekin batera (1750) desagertzen da Europan Barroko aldia eta 50 urtetan iraungo duen klasisismoak jarraituko du musikagintzaren hobe zintasunean. Haydn eta Mozart izango dira garai baketsu honen adierazleak. Gluck eta Beethovenek Erromantismoari ateak zabaldu arte. Euskal Herrian ere lehen aldiko musika tankerak jarraitzen du baina Arriaga hiltzen denean (1826) Erromantismoarako bideak urratuta daude.

Herri musika eta musikagile landuena Erromantismoan besarkatuko dira baina bilakabide hau lehenagotik hasten da, alegia 1765ean Herri Adiskidean Elkartea sortu zenean. Xabier Maria Munibe, Peñafloredako Kondea (1729-1785) izan zen kultur mugimendu honen sortzailea. Elkar-tearen Arautegiak aitortzen zuenez, Euskal Herriak (*Nación Bascongada* dio erdal textuak) Zientzia, Ederti eta Letretarako zeukan zaletasuna bizkortzea zen Elkar-tearen helburua. Musika ere Edertien artean kokatzen zenez, Elkar-teak ondo landu zuen arloa izan zen, Munibe bera musikagileen artean zegoelarik. Operak musikatu zituen, herriko gaiak hartuz eta musikagile herrikoia agertuz: *Gabon Sariak* eta *El Borracho burlado*, biak euskal textuekin apainduak. Pedro Ignazio Barutiaren *Acto para la Nochebuena* edo Gabonetako Ikuskizuna opera ere sasoi honetako da.

Elkarte honen bazkideak izan ziren baita ere Manuel Gamarra Likona (1723-1791) Zailordaren jarraitzailea Bilbon, Juan Andres Lonbide Mezkoa (1745-?) Bilbon, Oviedon eta Madrilen organulari trebea, eta Joseph Larrañaga (1726-1806) Arantzazuko fraidea. Euskal Herri-  
tik kanpo musikagintzan ari zirenak ere baditugu garai honetan: Pedro Aranaz Vides (1742-1821) Cuencako katedralean organulari eta kapel mai-

su, eta Joakin Tadeo Murgia Azkonobieta (1759-1836) Malagako katedralean organularia. Eliz kutsuko musikatik aparte aipatu behar dugun bat Blas de Laserna Nieva (1751-1816) dugu, Madrilen *tonadilla* egilea.

Euskal Herrira berriz itzulita, Arantzazuko kaperak eman zuen uztz nabaritzen da XVIII. azken eta XIX. hasierako urteetan. Organu, klabe, beste soinu-gailu eta koru ederrarekin hornituta zegoen kaperarako musikalan pila egin zuten lehen aipatutako Larrañagak eta beste fraide mor-do batek: Agustin Etcheberria, Fernando Egiguren, Franzisko Ibarzabal eta Sostoa-tarrak, alegia, Manuel eta Andres anaiak. Jon Baguesek prestatu duen Arantzazuko Artxiboaren Katalogoan azaltzen da talde honek izan zuen garrantzia orduko musikagintzan. Beste musikalan batzuen artean euskal textudunak ere musikatu zituzten, gehienak *bilantzikoak*. Frantziskotarren artean Bilboko Komentuak ere orduan izan zuen garrantzia aipagarria da. Bertan eman zigan Martin Oarabeitiak 1755an beste euskal Gabon Kanta bat eta beste bat 1794an Antonio Zabalak Donostiako Andra Maria Basilikan ere bertako kapel maisu zen Migel Oruña musikatu zituen 1769-1783 tartean euskarazko bilantzikoak. Musikegile honen ondoan Mateo Antonio Perez Albeniz, Logroñon jaioa (1765-1831) eta tolosar batekin ezkondua, izan zen Donostiako Basilikaren kapel maisua. Iruñeko katedralean ere kanpotar bi izan ziren nagusi aldi honetan: Jose Ferrer (1745-1815) aragoarra, eta Julian Prieto (1765-1844) errioxarra.



Juan Crisostomo Arriaga, Euskal Herrian Erromantismoari hasiera eman ziona, eta munduan zehar euskal musikaririk ezagutuena, Ravelekin batera.

Baina Erromantismoaren atarian agertzen zaigun izarra, Maurice Ravelekin batera euskal musikurik ezagutuena, Juan Crisostomo Arriaga Balzola (1806-1826) da. Bilbon jaioa, txikitatik agertu zuen musikarako joera eta trebetasuna, hamaika urtekin eman baitzuen lehen pianoko kontzertua eta urte berean, 1817an musikatu baitzuen orkestarako lehen lana. 1820an, hama-lau urtekin konposatu zuen *Los esclavos felices* opera, erromantiko kutsukoa, eta hurrengo urtean Obertura bat eta *Stabat Mater* bat. 1822an Paris-eko Kontserbatoriora joan zen ikasketak egitera eta 1824an argitara eman ziren bere *Kuartertoak*. Hogei urtedun zelarik hil zen Parisen 1826an Hurrengo urtean hil zen Beethoven, Europako

Erromantismoaren iraultzailea. Aldi berri honen sortzaileak ezagutu zituen Arriagak Parisen eta bera ere erromantiko hutsa izatera iritsiko zen denbora gehiago bizi izan bazen; baina bere lanean ikus dezakegunez, gaiagatik edo zerabiltzan soinu-gailu (pianoa, noski) eta konposaketaren egituragatik, Erromantismoko munduan lehen urratsak eman zituela esan beharko genuke.

## Erromantismotik herrikoitasunera (1826-1876)

La berrogeitamar urte doaz Arriaga hil zene-tik Ravel jaio arte (1875). Gertaera ondorioitsuak bizi ditu Euskal Herriak une honetan eta politikari dagokionez bi karlistadak mugatzen dute aldia: 1876an bigarrena bukatzen denean abolitzen dizkigute Madriletik Foruak eta gertaera honek sortzen du, kultur arloan behintzat, beste pentsa-molde bat.

Europar Erromantismoa garaile den bitar-tean, atzerakada bat ematen du gure musika egoerak, nahiz eta han-hemenka giro berri hori azaldu. Europako musika giroa berehala emeko zen gure herrian Arriagak bezala beste musikuak Pariseko bidea hartu izan balute. Egia esan, Erromantismoaren hasieran bide horretatik jarraitu zuten bibolina eta pianoa ikasi nahi zutenek. Esan dezagun Erromantismoaren ezaugarri bat soinu-gailu bakarrak eragintzea zela eta pianoa eta bibolina izan zirela errege: Sonatak eta kontzertuak musikatu zituzten musikagile erromanti-



Pablo Sarasate dugu, beharbada, euskal musikuen artean ezagutuena Erromantismo garaian. Bibolin jolea, munduan zehar adierazi zuen bere trebetasuna.

ko guztiek. Juan Armingaud baionesaren eskola-ra joan zen Delfin Alard (1815-1888) herkieida eta honekin ikasi zuen Pablo Sarasate Navas-kues nafarrak (1844-1908). Rufino Lacy bilbotarrak ere (1793-1847) Parisen egin zituen bibolin-ikasketak, Belaunaldi honetako pianolariak ere Parisera joan ziren XIX. mendeko lehen urteetan: Pedro Albeniz Basanta (1795-1855), Mateoren semea, eta Juan Maria Gelbenzu Fernandez, iruñearra (1819-1886). Baina 1830ean Madril-eko Kontserbatoriora sortu zenean, hasi zen lehen aipatutako atzerakada, Parisekin zeuden harremanen haria moztu zenean, noski. Pedro Albeniz, izatez, Madril-  
en irakasle kokatu zen eta Espainiako piano eskola modernoaren aita dela

diote. Baina berak bakarrik ezin izan zuen, beste atzeratu askoren kontra, Europako haize fresko berria irakaskintzan sartu.

Europar Erromantismoak hartzen duen abia da Madril en ia ezagutu ere ez da egiten. Geldiune batetan datza irakaskuntza eta musikagintza ere, bata bestearen ondorio bat baita. Eta geldiene honetan batuta daramana Hilarion Eslaba Elizondo da (1807-1878). Lehenaldia larregi lotuta zegoen eta ikerketa baliogarriak egin arren (Lira Sacro Hispana, Museo Orgánico Español) musikagintzan XVIII. gizaldian sartua zen italiar kutsua agertu zuen musikalanetan. Musikaren arlo guztiak ikutu zituen Eslabak baina gehien landu zuena musikaren pedagogia izan zen: hor dugu Solfaketako Metodoa (1837) eta Harmonia, Kontrapunto eta Fuga, eta beste gai askotarako prestatutako ikasbideak. Eslaba hil zenean Ravel jaioa zen eta batetik bestera dagoen uruntasuna beste batzuk hurbildu beharko dute.



Hilarion Eslaba, musikagile trebea, hainbat euskal ikasle hezi zituenak, ikasbideak argitara emanaz pedagogia alorra ondo baino hobeto landu zuen.

Eslabaren ikasleetatik gehienak maisuaren bidetik jarraitu zuten: Benanzio Herrasti Bernal (1813-1887), Jose Aranguren Añibarro (1821-1903), Juan Maria Blas Altuna Maskarua (1828-1868), Jose Toribio Eleizgarai Mugerza (1839-1910), Ziriako Jimenez Ugalde (1828-1893), Remigio Oskoz Calahorra (1833-1890), Buenabentura Iniguez Telletxea (1840-1902), Apolinar Brull Aierri (1845-1905), Jose Gainza Garamendi (1844-1882) eta abar. Eslaba izan zen zortziko erritmoa estudiatu zuen lehena eta ikasleak ere izan zituen zortziko erritmo hori musikagintzan erabili zutenak: Abelino Agirre Leizaola (1838-1901) eta Damaso Zabalza Olaso (1833-1894). Euskal herri-musika ere ordurako ezagutzen zen musikagileen artean eta Kleto Zabala Aranbarri dugu lehenetarikoa honetaz arduratzen hasi zena: hor dugu berak musikaturako "Gora ta gora Euskadi" orain ereserki ofiziala dena.

Baina Eslabaren ikasleen artean hiru dira gailurrean jartzen direnak: Juan Ambrosio Arriola Jauregi (1833-1863) elorriarra, gazterik hil eta maisuaren profetia ezin bete izan zuena,



Julian Gaiarre, euskal tenore famatuak, mundu osoari azaldu zion, Opera Kantari gisa, bere ahots ederra.

alegia, "Europako organularirik hoberena izatera deitua". Balentin Zubiaurre Urionabarrenetxea (1837-1914) garaitarra izan zen bestea, Madrilko Kontserbatorioan italiar kutsua zapuztuz Europako haize berriak sartzen ahalegindu zena. Azkenik, Felipe Gorriti Osanbela (1839-1896), Uharte-Arakilen jaioa eta Euskal Herri barruan Frantziako organu-eskola berria erakutsi eta irakatsi zuena. Eslabarekin estudioak egin ondoren, Tafallako organularia izan zen eta 1867.etik hasita, Tolosako organularia eta bertako musika-eskola sortu zuena. Felipe Gorritik eman zuen gure herrian urratsik handiena gure atzerapena suntsitzeko eta bide berrietan gure musikagintza txertatzeko.

Eslabaren ikaslerik gehienak eliz kutsuko musika egiten ari ziren, organulari edo kapel maisu bezala. Eta Eslabaren eskola honen aurkako bat agertu zen Madril en, Italian ikasketak egin ondoren: Emilio Arrieta Korera (1823-1894) garestarra. Joakin Gaztanbide Garbaio (1822-1870) nafarraren bidetik jarraituz, hainbat zarzuela musikatu zituen Arrietak, denen artean *Marina* ezagunena delarik. 1868an Eslabaren lanpostua hartu zuen, hots Kontserbatorioaren zuzendaritza. "Género chico" delakoaren aita izan zen gure Arrieta, eta Chapi, Bretón, Marqués eta beste batzuen maisua. XIX. mendearen azken urteetan badira oraindik Madril en jarraitzen duten euskal musikak: Felix Ortiz San Pelayo (1856-1941), Balentin Arin Goenaga (1854-1912), Harmonia Metodo bat argitara eman zuena, José Erviti Legarra (1852-1900), Donostian dagoen musika etxea sortu zuena, Fabian Furundarena (1862-1928), Joakin Larregla Urbieta (1865-1945), Antonio Trueba Aginagalde (1885-1944) eta German Landazabal Garagarza (1884-1958), Erromako Saria irabazi ondoren, Italian, Alemanian eta Paris en ikasketak bete zituen. Baina Erromantismo garaioko euskal musikurik ezagunenak ez ziran musikagileak izan, ez bazuten, egia esan, ezertxo berriarik ekarri, baizik eta adierazle edo interpreteak: lehen aipaturako Pablo Sarasate, arrabitarria, eta Julian Gaiarre Garzon (1844-1890) kantaria, Pedro Garaten jarraitzailea.

Herri-musikari heltzen badiogu, herri jakintza baloratzea eta maitatzea dela Erromantis-



RESURRECCION MARIA AZKUE jaunari asko zor diogu euskaldunok gure kulturaren alor guztietan. Musika landuan egin zituen lanetatik aparte, bere Euskal Kantutegia utzi zigun gure herriaren musika aztertu nahi dutenek nahitaez begiratu beharko dutena.

moaren beste ezaugarri bat esan beharko dugu. Herri-jakintza honi izena emateko *Folklore* hitza asmatu zuen 1846an William J. Thoms ingelesak. Izen honekin argitaratu zuen 1883an Julien Vinsonen *Le Folklore du Pays Basque* liburua, kanta batzue ere emanaz. Baina hirurogei urte lehenago, Arriagaren heriotzaren inguruan, hots Erromantismoaren atarian, euskal doinuuen bilduma bat egina zeukan Juan Inazio Iztuetak (1767-1845) eta argitara emana 1826an, Gipuzkoako *Dantza gogoangarrien kondaira edo historia* (1824) liburuari egin zion eranskin gisako beste liburu batetan. Herri-doinuak, dantzenak kasu honetan, lehendabizi ematen ziren moldiztegi bitartez. Dantza-arloan hau da Europako lehen bilduma inprimatua. Iztueta bezalako pertsonaia erromantikoa Jose Agustin Txaho (1811-1858) izan zen, herri kantak biltzen eta argitaratzen ibili zen zuberotarra. Erromantismoaren beste ezaugarri bat kultura arrotzak ezagutzera zen eta hala sortzen da 1857an Francisque Michel frantsesaren liburua *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*, euskal herri-kantak ematen dizkiguna. Bost urte geroago, 1862an, Jose Antonio Santestebanek argitaratzen ditu Donostian, ahots eta pianoarako, 79 euskal kantu; esan dezagun lehen aipaturako muga-urtean, alegia 1876an, bilduma honek lortu zuela Vienako lehiaketa batean lehen sari bat. Villehelio andereak (Julie Adrienne Karrikaburu izenekoak) eman zigun 1869an bilduma labur bat eta hurrengo urtean agertu zen aldi honetako bildumarik onena: Jean Dominique Julian Sallaberrik argitaratu zuen *Chants Populaires du Pays Basque* (1870) geroztik lau argitarazio ezagutu dituen liburu baliotsua. Geroago (1877-1880) *Cancionero Basco* izena emango dio Jose Manterolak hiru tomatan argitaratutako lanari, baina literatur bilduma bat da, gehienbat, nahiz eta hamabi doinu ekarri. Mendearen azken urteetan hiru bilduma labur argitaratuko ditu Charles Bordes frantsesak: *Uskal noelen lilla* (1897), *Dix cantiques populaires basques en dialecte souletin* (1898) eta *Douze chansons amoureuses du Pays Basque* (1898). Horrez gainera, euskal herri musikaz estudio bat ere idatzi zuen Charles Bordesek, "La Musique populaire des Basques", *La Tradition au Pays Basque* liburu

ederraren barruan Parisen 1899an argitaratua. Estudio hau izan daiteke gure musikari buruz egindako lehen lan musikologikoa.

Baina kantuetatik aparte, zein da herrian dagoen musika giroa? Ilustrazio garaian, XVIII. mendean alegia, eliteek bakarrik gozaten zuten musika beraien batzarretan. Ikusi dugunez, 1765an sortutako Herri Adiskideen Elkartek musika herri-hurbiltzeko saio txalogarria hasi zuen eta hurrengo mendean, Erromantismo garaian, musika herrikoen artean zabaltzen hasi zen, eta musika ikasteko gogoia ere herriarren artean sortu zen. Solfaketa Metodoak, pianoa, organua, bibolina eta beste soinu-gailuak jotzekoak ere nonahi ikusten ziren. Hiri nagusietan eta herri txikiengan ere musikaren kontzientzia sortu zen eta elizen inguruetan lehenik eta udalen babespean gero, hainbat Akademia agertu zitzaizkigun. Nikolas Ledesma Garcia (1791-1883) aragoarrak Bilbon, Jose Juan Santesteban "Maishuak" (1809-1884) Donostian, Mariano Garcia Zalbak (1809-1869) Iruñean, Felipe Gorritik Tolosan, eta abar, elizetako kaperak zuzenduz gainera, orkestra txiki batzuek mantentzen zituzten soinu-gailuak jotzen irakatsiz, tar-tean organua eta pianoa zirelarik. Organuak zaharrak ziren, baina Euskal Herriko organugileen eskolak aurrera jarraitzen zuten eta Amezua, Riques eta beste organugileen familiak lanean jardun zuten. Mendearen erdialdian, erromantismoarekin batera, kanpoko organuak eraiki ziren, frantsesak gehienak (Cavaille-Col, Stoltz, Merklin) eta alemanak (Walcker). Lekeitioko Cavaille-Col organua dugu lehena, 1861an eraiki zena; gero dator Donostiako Andra Maria Basilikakoa. Baina kanpotik organu ederrak, erromantikoak, ekarri arren, herriko organugileek ere ari ziren eten gabe lanean (Dourte, Alberdi, Melcher, Amezua, eta abar) eta mendea bukatzen denean ez dago gure herrian elizarik, txikiena izan arren, organu bat ez daukanik. Pianoa ere soinu-gailu erromantikoa da, klabearen ondoren, pianoforte izatetik orain ezagutzen dugunera iritsi zena. Pianoa jotzen zuen Arriagak txikitatik, 1817an piano-kontzertu bat marraztu baitzuen. Arantzazuko Monastegian ere "un piano de cinco octavas bastante bueno" agertzen da 1827an. Beraz, organulariak eta pianulariak ugari sortzen dira gure herrietan, eta musika landura heltzen ari dira herriarrak.

Herri soinu-gailuak ere abiada galanta hartzen edo erromantismo garaian: txistua, bolin gozo edo dultzaina, alboka eta abar dira jaietan entzuten direnak. Itzuetak diosku Pepe Antonek eman zituela XVIII. mendean txistuaren arauak; beraz, ordurarte txistulariek zeukaten berezko askatasuna, ikasbide eta arautegi batekin lotzen da. Juan Barrutia, Bizente Ibarguren, Juan Bautista Bareño eta beste XVIII. mendeko txistularien jarraitzaile ditugu XIX.ean Manuel Dorremotz, Silbestre Ansola, Jose Salutregi, Inazio Etxalea, Antonio Gomendio, Patxi Arsuaga "Txango", Karlos Bergaretxe, Amezuatarrak, etab. Bertsulariek ere herri-musika kantatzen dute eta hor daude, Perrando Amezketarragandik hasita, Xenpalar, Iparragire, Bilintx, Xabalotegi, Zabala, Jose Bernardo, Udarregi, Pello Errota, Etxahun, Bordel, Txirrita...

## Herrikoitasunetik herri-musikaren garaipenera (1876-1936)

Erromantismoak jarri zituen herrikoitasunaren oinarriak, herriaren kultura maitatzeko eta baloratze bideak zabalduz. Herria bera hasi zen ondare honetaz konturatzaren Antoine D'Abadie 1853an Euskal Jaiak Uruñan sortu zituenetik eta jakintsuen mailan ere herri musikaren balioaz eta euskal herri musikaren berezitasunaz

konturatu ziren, Glinka, Gevaert, Bordes, Pieme eta beste Europako musikari batzuek miretsi zirenean.

Politikaren munduan gure askatasunen garaipena moztu zen 1876an eta bizi nahi zuen herriak bide hauek hertsirik ikusi zituenean, kultur bideak zabaldu beharrean aurkitu zen bere nortasuna errotzeko. Ikerketak eta eztabaidak, hitzaldiak eta argitalpenak, lehiaketak eta jaialdiak, gero eta gehiago nabaritzen dute gure musikaren bizitasuna eta berezitasuna eta herrikoitasunetik laster iritsiko gara herri musikaren garaipenera.

Europar gertatzen den fenomeno berdina ezagutzen dugu Euskal Herrian. Italiar kutsuko musika zegoen Europar zehar zabaldua eta italiarrak ziren toki askotan musikaren giroa menerraten zutenak. Cavatina, ariak, erromantizak eta abar edonon entzuten ziren eta gure artean, tan-kera horren antzeko "zortziko koipeak" —Azkuere-aren esanetan— sortu ziren. Kanpotik etorritako doinuei zortziko eritmoa jarri gero uste zuten euskal musika zela egiten zena. Iragazte horren aurka kontraekintza bat lehertu zen XIX. mendeko azken urteetan: Balakireff, Cui, Moussorgsky, Borodin, eta Rimsky-Korsakoff Errusian, Smetana eta Dvorak eslaboen artean, Grieg eta Sibelius eskandinaboen artean, eta hurbilago Albeniz, Granados, Pedrell, Falla eta Turina dira herri musikak erabiliz italiar mosaikoa arrakalatzaren dutenak. Hala sortuko dira Europar Nazionalismo musikalak. Herri-kulturak eraikitzen dituen zutabe bitan, hizkuntza eta musika, berramatu dira nazionalismoak.

Musikagintzaren egoera berri horretara iristeko, beharrezkoa da norberaren musika ezagutzea. Lehen aipatutako kantu-bildumak sortarazi zuten lehengo ukipen bat baina gure musikari buruzko ikerketa sakon bat egiterakoan urriak ziren ordurarte ezagutzen ziren euskal melodiak. Resurreccion Maria Azkue izan zen biltze-lanean jarri zen lehenetarikoa. Hiriart apaiza ere lanean hasi zen eta 1906an eman zigun 200 melodiek bilduma bat. Jose Antonio Donostia fraideak ere hainbat kanta bildu zituen. 1912an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek kantu bilduma sariketa bat antolatzen zuten eta Azkue irabazi zuen lehen saria ia bi mila doinudun bildumarekin. Bigarren saria Aita Donostiak lortu zuen bostehunetik gorako bildumarekin. Gehienak desberdinak zirenez, euskal musikari buruzko azterketak egiteko bazegoen bi mila eta bostehunetik gorako bilduma. Gai ugari honetan oinarriturik, Azkue, Donostia eta beste, gure musikari buruzko estudioak egiten eta lanak argitaratzen hasi ziren eta azkenean lortu genuen euskal musikaren teoria.


Baina herri musikaren garaipena ez zen heldu herriak berak bere musika entzun, onartu eta txalotu arte. Eta nazionalismo garaiko musikegileek izan zuten aukera eta eduki zituzten tresnak herriari beronen musika harmoniaz apaindurik itzultzeko. Ikus dezagun izugarriko musika giroa sortzeko zeintzuk izan ziren erabilitako tresnak:

### Orkestak

Estatu guztian sortu zen lehen orkestra Iruñeko Santa Zezilia izeneko izan zen, 1879an Sarasateren eraginez eta laguntzaz antolatutakoa. Bilboko Orkestra Sinfonikoa 1922an sortu zen. Donostian ere 1927an antolatzen zen Orkestra Sinfonikoa baina ez zuen iraupen luzeirik izan.

### Musika-Bandak

1831n aurkitzen dugu lehen datu historikoa: Eibarren hiriko Elkartea Filarmonikoari diru laguntza bat ematen zaio musikatresnak eroste-



Jose Mari Usandizagak bizi laburrean emandako musikalan estimagarri eta baliotsuak jartzen du donostiar hau gure musikegile artean aurrenetariko tokian.

ko. Eta mendearen erdialdian, hiri nagusietan eta herri txiki askotan fanfarriak, txarangak eta bandak ere antolatzen dira. Mendearen azken urteetan udalekoak bihurtzen dira musika banda hauek. Donostiako Udal Bandak 1887an eman zuen lehen entzunaldia. Bilbon 1867an Garcia Amorrostak zuzentzen zuen Hiriko Teatroaren Banda eta 1894an sortu zen Udal Banda. Gasteizko urte berean antolatu zuen Alejandro Jimenezek. Gure mendearen hasieran herrietatik ugari zabaldu ziren bandak eta ugaritasun horren lekuko aipa dezakegu 1914ean Arantzazuko Saindutegian ere bazegoela bat eta Gasteizko Apezgaitegiak ere berea izan zuela. Hain ugari ziren Bandentzat eta oparo musikatzaren ziren partiturrak argitaratzeko, Tolosan sortu zen musika argitaletxe bat 1921an.

### Orfeoak

Parisen 1833an asmatutako hitz hau eman zuten Euskal Herriko lehen kantari taldeei, 1865an sortu zirenean Iruñea eta Donostiako Orfeoak. 1869an sortzen da Bilbon lehen orfeoa. Baina ez dira gorengo mailatera heltzen beranduago arte: 1891an Remigio Mugikak hartzen du Orfeoi Iruñearren zuzendaritza; 1902an Sekundino Esnaolak Orfeoi Donostiarrarena; eta 1886an Kleto Zabalak eta gerotxoago Aureliano Valle Bilboko Koral Elkartearena. 1909 gizon ahotsez osatzen zen Bilboko Koralak andren ahotsak ere txertatzen ditu eta berdin gertatzen da besteekin ere. Hiri nagusietatik aparte, beste hiri eta herrietan ere sortu ziren orfeoak, hainbat lehiaketetan bultzatuak. Ordutik hona oparo sortu dira gure herrian orfeoak eta koralak, gaurko 200 erakundeetara iritsi arte.

### Txistulari-Bandak

XIX. mendearen azken urteetan ordurarte banaka jotzen zuten txistulariek bandetan bildu ziren eta hainbat bakarkako doinuak hiru txistuentzat harmonizatu ziren. Rogaziano Arsuaga "Sorgin", Eusebio Basurko, Uriatarrak, Ansolatarrak, Maurizio Elizalde, Benito Okariz, Martin Elosa, Primitibo Onraitia, eta abar izan ziren udaleko txistulari bandak sortu zituztenak. 1927an antolatzen Arraten Euskal Herriko Txistularien Elkartea, orain ere bizirik jarraitzen duena. Elkar-tearen Txistulari aldizkariak milaka argitaratu ditu txistu-bandarako partiturrak.

Euskal musikari izugarritzko bultzada eman zioten erakunde guzti hauek musikegileen tresna bat izanez eta herriaren musika-giroa biztu eta sendotzeko erakunde baliotsuak izatera iritsiz.

## Europako bideetan berriz


Erromantismo garaian, ikusi dugunez, atzerakada bat eman zuen euskal musikagintza landuak. Pariseko giroa utziz Madrilekoarekin larregi lotu zirelako gure musikariak. Zorionez, gure mendearen hasieran, taiuzko musikagintza bat nazionalismoak behar izan zuenean, zabaldu ziren berriz Europako bideak. Europako musika-giroa eta teknika berriak beharrezkoak ziren gure musika goi maila batetan jartzeko. Gure herriak zeukan musika aberastasuna eta eman zituen musikariak ehortzita geratuko ziren, Euskal Herriak Europako herrien bidea hartu ez balu. Orduan —eta betirako— Europara begira jarri zen gure herriak, Madrilekin zeukan zilhetea moztu zuen eta berrogeitahamar urteko atzerakada gainditzeko era lortu zuen.

Egia esan, mendearen hasierarako Madrilek ere urrats luzea emanda zeukan musikaren irakaskintzan, baina erraldoi urratsak ematen ari zen Europako musikagintza eta beharrezkoa zen prozesu horretan sartzea. Euskal musika nazionala European txertatzeko beharrezkoa zen Europako hizkuntza musikala mintzatzea, bertako teknika eta estiloa norberganatzeara. Eta horretarako ezinbestekoa zen oinarritik hasia: bertan ikastea.

Lehendabizi zuzenean Parisera jo zutenek Usandizaga, Guridi eta Azkue izan ziren. Jose Maria Usandizaga Sorraluze (1887-1915) Pariseko Vincent D'Indy-ren Schola Cantorumera joan zen 1901an eta piano ikasketak amaitu zituen, 1905an, Donostiara itzuli zen. Hainbat musikalan burutu ondoren, tartean *Las Golondrinas* eta *La Llama* operak, beste Arriaga bat bezala, 28 urtekin hil zen. Parisen eta ostatu berean beste euskal musikari bi ezagutu zituen, hara 1904an helduak: Jesus Guridi Bidaola (1886-1961) eta Resurreccion Maria Azkue Aberasturi (1864-1951). Bi hauek Parisetik Bruselara jo zuten eta Kolonian amaitu zituzten ikasketak. Alema-



Fernando Remacha benetan aipagarria da musikagintzan eta irakaskuntzan egin duen lan baliotsuagatik.



Zalantzarik gabe Maurice Ravel dugu euskal musikalaririk handiena. Debussy-rekin batera musikaren historian inpresionismoa finkatu zuen euskaldun famatu honek.

nia aldera joan ziren Andres Isasi Linares (1890-1940) bilbotarra eta Pablo Sorozabal Mariezkurrena (1897) donostiarra. Eta Madrilen ikasketak batzuekin ondoren Bruselara joan zen Bernardo Gabiola Lazpita (1880-1944) gero Madrileko Kontserbatorioan organu katedratikoa izan zena. Fernando Remacha Villar (1898-1984) tuterarra, Madrilen Erromako Saria irabazi ondoren Italiako Hiriburura joan zen eta hona itzultita 1934-ean Musikazko Sari Nazionala irabazi zuen. Iruñeko Kontserbatorioa eraberritu zuen Remachak.

Parisen kokatu zen 1919/1920 tartean beste euskal musikari talde bat: Juan Telleria Arribazabalaga (1895-1949), Norberto Almandoz Mendizabal (1893-1970), Jose Antonio Donostia (1886-1956), eta Migel Etxebeste Arrieta (1893-1962). Lauretatik, euskal musikaren alde egin zuen lana eskertzeko, Aita Donostia nabarmentzen da. Musikegile, folklorista, ikerle, hizlari eta publizista, berari zor diogu euskal musikologian egin den lanik zabal eta sakonena. Geroago heldu ziren Parisera Jesus Aranbarri Garate (1902-1960) eta Francisco Eskudero Garzia-Goizueta (1913). Eliz musikari dagokionez, Julio Valdes Goikoetxeak (1877-1958) Ratisbonan bete zituen ikasketak mendearen hasieran.

Baina euskal musikarietatik entzute handikoena Jose Maurice Ravel Deluarta da, 1875an Ziburun jaioa. Haurra zelarik eraman zuten Parisera eta bertako Kontserbatorioan bete zituen musika ikasketak. Piano-saria irabazi zuen 1891an, baina Ravel ez da pianolaria izango, musikegilea baizik, Debussy bezala inpresionismoaren eragile eta adierazle. Pianorako eta orkestrarako musika zituen lanik gehienak: *Sérénade grotesque* (1893) izan zen pianorako egin zuen lehena eta *Shéhérazade* (1898) orkestrarakoa. Gero musikatuko ditu *Le Tombeau du Couperin* (1917), *La Valse* (1920), *Boléro* famatua (1928) eta esku ezkererako *Kontzertua* (1931). Parisen hil zen Ravel 1937an. Ravel euskal musika izan zen ez jaioterriagatik bakarrik, euskalduna izan zelako baizik. Bere musikalanetan ez zuen herri melo-

diarik erabili nahi, baina pianorako *Trio* (1914) Donibanen musikatu zuen eta zortziko erritmoan egin da. Piano eta orkestrarako kontzertu bat ere hasi zuen, *Zazpiak bat* izenburukoa, baina ez zuen amaitu. Hemendik atera zituen geroago gai batzuekin *Euskal Kontzertua* deitzen zaiona musikatzeko. Euskal musikurik handiena dugu, zalantzarik gabe, Maurice Ravel.

## Euskal opera

Hamazazpigarren mendean Barrokoarekin sortu zen musikagai honek garapen harrigarria lortu zuen erromantikoen artean. Eta euskal musikegile erromantikoei ere hainbat opera musikatu zituzten XIX. mendean: Eslaba, Arrieta, Serrano, Zubiaurre, eta abar. Azken hau izan zen euskal gaiko opera eman zigan bakarra: *Ledia*. Beste atzerrietako musikegile batzuek ere euskal gaiak erabili zituzten operagintzan: Paul Vidal, Jules Massenet, Charles Bordes, Gabriel Pierné, Jean Poueigh, eta beste.

Baina hemen aipatu behar direnak, euskal musikegileak eta euskal gaietaz egindako operak dira. Lehena, Buenabentura Zapiarain Uribe (1873-1937) egin zuena da, *Txanton Piperri* (1899). Parisen ikasketak egin ondoren bigarren opera bat musikatu zuen, *Anboto* 1909an Bilbon estreinatua. Urte eta toki berean estreinatu zen Charles Colinen *Maitena*. Honek ukan zuen arrakastak adore eman zien Bilboko Koral Elkar-tekoiei hurrengo urtean hiru opera prestatzeko: Usandizagaren *Mendi mendian*, Guridiren *Mirentxu* eta Santos Intxaustiren *Lide ta Ixidor*. Bigarren opera bat, *Itxasondo* izenekoa, estreinatu zuen Intxaustien urte berean.

Bere eskola lagunen bidetik jarraituz, *Ortuzuri* opera estreinatu zuen Azkuek 1911an, eta 1914an bigarren batekin ere ausartu zen, *Urlo* izenekoa. Joseba Olaizola Gabarain (1883-1969) izan zen hurrengo operagintzan, 1918an Oñatin estreinatu baitzuen *Olezkari zarra*. Gorritiren ikaslea izan zen Eduardo Mokoroa Arbilla



Nazionalismoaren garaian musikaren arlo guztiak ukitu zituen dugu Jesus Guridi: organua, opera, sinfonia, ahotzetarako lanak, eta abar.

(1867-1959) tolosarrak ere *Leidor* izeneko opera bat eman zigun. Andres Isasi, Busca Sagastizabal, Sainz Basabe, Martinez Larrazabal eta abarrek ere operagintzan lan egin zuten. Baina nazionalismoaren opera Jesus Guridiren *Amaya* da; 1920an estreinatu zen Bilbon. *El Caserio* (1926) eta *Mari Eli* (1936) euskal gaietako zarzuelak ere musikatu zituen Guridik; baina euskal melodiekin osatu zuenik lanik ederrena *Euskal Hamar Melodiak* izan zen, Madrilen 1941an estreinatu zena. Madrilen Gabiolak organu-katedra utzi zuenean, Jesus Guridi izan zen hurrengo katedratikoa.

Gerra osteko musikagintzara iritsiz, Franzisko Eskudero musikagintzako *Zigor!* opera nabaritzen da. 1967an eman zen kontzertu gisa Bilbon, eta lehendabiziz antzeztua izan zen Madrilen 1968an. Donostiako Kontserbatorioaren zuzendaria izan zen Eskudero hainbat euskal kutsuko lanak musikatu ditu: *Illeta*, *Arantzazu* eta abar.



Hogeigarren mendearen erdialdian Patxi Eskudero dugu lehengo musika tankera eta teknikatik gaurkoetara urratsik luzeena emalen duena. Hor dugu eredutuz *Zigor!* opera.



Eliz musikari dagokionez, Bizente Goikoetxea izan zen polifonia modernoari bultzada eman ziona. Bere lanak Europako Katedraletan ezagunak dira.

Opera aipatzen ari garenez, Bilboko ABAO korala azaldu behar dugu lerro hauetan, eta hainbat kantari: Agirregabiria, Altube, Cazenave, Constantino, Egileor, Fagoaga, Gorostiaga, Huarte, Agirresarobe, Tabuyo, Mardones, Olaizola, *Ere-soinka* talde folklorikoa gerra denboran atzerrian sortu zuena, eta abar.

## Eliz musika

Gure musikuetatik gehienak elizetan eman zituztela lehen urratsak kontuan hartzen badugu, gure herrian eliz musikak daukan bizitasun eta indarra normala irudituko zaigu. Eslabaren ikasleak eliz kutsuko heziketarekin itzuli ziren Euskal Herrira eta beraiek hemen sortutako musika-eskolak ere, nahiz eta teknika berriekin jabetu, beti izan ziren eliz musika girodunak. Horrez gainera, gure musikegile handienak, organulariak eta pedagogoak, apaizak eta fraideak izan dira 1936 arte behintzat.

Hurbil izan dugun eliz musikalariei belau-naldia 1896an sortu zela esan dezakegu, Bilbon antolatutako Kongresoan. Pio X.ak 1903an musi-

kari buruz argitara eman zuen Motu Propioaren ondoren, Bizente Goikoetxea Errasti (1854-1916) eta Nemesio Otaño Egin (1880-1956) izan ziren musikaren eragileak. Bien artean antolatutako Valladoliden 1907an Eliz Musikaren I Kongresoa. Goikoetxea, gure eliz musika modernoaren aita, Valladolideko Katedralean kapel maisua zen, eta teknika berriekin polifoniarik ederrena eman zigun. Otañok eman zuen argitara 1909an *Organu Antologia* bat, euskal musikegileen eskola berria azaltzen zuena. Bilduma honetan agertzen dira organulari hauen musikalariek: Jose Maria Beobide Goiburu (1882-1967), Inazio Busca Sagastizabal (1868-1950), Martin Rodriguez Seminario (1871-1961), Jesus Guridi, Luis Urteaga Ituriz (1882-1960), Julio Valdes, Jose Antonio Erauzkin Aiestaran (1888-1961), Victoriano Balerdi Urre-ta (1870-1903), Jesus J. M. Virgala Inda (1878-1956) eta abar. Gure organularien eskola berri hau laster da Europar egazutua eta beraien musikalariek Europako bildumetan agertzen dira. 1910an sortu zuen Otañok Comillasen Schola Cantorum bat eta bertan hartu zituzten musika ikasketak Almandozek, Luis Usobiaga Arrietak (1887-1940) eta Pedro Bilbao Urrutiak (1892-1955). Nemesio Otaño Madrilgo Kontserbatorioaren zuzendaria izan zen azken urteetan.

Eliz polifonia eta gregorianoa bultzatzeko antolatutako Baionan Kongreso bat 1913an. Gregorianoa bultzatzen aintzindaria izan zen Eustokio Uriarte Amorrortu (1863-1900) eta berak urratutako bidetik jarraitu du gero hainbat euskal musikari, Aita Donostia esaterako eta Jose Maria Olaizola Azkue (1893-1978). Oñatiko Kongresoan, 1918an, *Cum jubilo* meza gregoriarra zuzendu zuena. Aita Jose Domingo de Santa Teresa karmeldarrak era (1888-1980) hainbat lan egin zuen gregorianoaren alde.

Organulari eta polifonisten izenekin zerrenda luze bat osatuko genuke eta ezin daitezke hemen denak aipatu. Baina ahanzi ezinekoak dira: Inazio Mokoroa, Bonifazio Iraizoz, Franzisko Perez de Vinaspre, Eduardo Gorosari, Juan Maria eta Alfonso Ugarte, Tomas Elduaingoa, Iruamizaga anaiak (Luis, Franzisko, Gerbasio, Juan, Kreszenzio eta Ruperto), Jose Maria Arregi, Natividad Garmendia, Leonardo Zelaia, Gaspar Arabolaza, Gregorio Arziniega, Jesus eta Jabier Garcia Romano, eta abar.



Organua izan da Euskal Herrian gehien erabili eta estimatua izan den musikagailua. Hemen dugu organulari talde bat: Zutik, Beltran Pagola, Joseba Olaizola, Pablo Sorozabal, Luis Urteaga, Jose Maria Beobide, Migel Etxebeste eta Jose Izurategi; *Jezarrita*: Nemesio Otaño, Bernardo Gabiola, Jose Antonio Donostia, Jesus Guridi eta Norberto Almandoz.

Gure musikarien heziketan beti izan du organuak garrantzi handia eta organurako musikagintzan eta kontzertuetan ere punterengoak izan ditugu: Luis Oharririxena, Hilario Olazarán Estellakoa, Lorenzo Ondarra, Julian Sagasta, Luis Bakaikoa, Luis Elizalde, Estanislao Sudupe, Benigno Iturriaga, Victor Zubizarreta, Luis Taberna, Antonio Agirrezabal, Alberto Mitxelena, Angel Urzelai, Pedro Matxinandarena, Emiliano Ibargutxi, Jose Manuel Azkue, Michel Milheres, Joakin Pildain, Luis Belzunegi, Juan Urteaga, eta abar, asko oraindik bizirik ditugularik. Zorionez, gure Kontserbatorioetan organu-katedrak mantentzen dira eta hor daude irakasle Esteban Elizondo, Jose Inazio Sanz eta Pedro Guallar. Organulariak izan arren beste musikagintzako arloetan ere ibili dira Tomas Garbizu Salaberria eta Franzisko Madina Igarzabal.

## Zuzendariak eta soinuariak

Hemen azaltzen diren musikariak zuzendari-tzan edo interpretazioan nabarmendu dira, baina gehienak musikagintzan ere lan egindakoak dira; jakina da zuzendariak eta soinuariak beraien koro, orkestra edo soinuagailuentzat musikalanak egin dituztela.

### Koruen zuzendariak

Sekundino Esnaola hil zenean (1929) Juan Gorostidi Garmendiak hartu zuen Orfeoi Donostiarraren zuzendaritza eta honen ondoren (1968) orain zuzendari den Anton Aiestaranek. Remigio Mugikaren ondoren (1946) Martin Lipuzkoa Urriazak zuzendu zuen Orfeoi Iruñearra, eta gero Juan Erasok, Pedro Pirfanok, Karmelo Llorentek eta orain Jose Antonio Huartek. Bilboko Koral Elkartearen zuzendaria, 1912an Aureliano Valle hil zenean, Jesus Guridi izan zen eta gerra ostean Modesto Arana Fuldain, Rafael Frühbek eta beste. Iruñeko Kamara Korala Luis Morondo Urrak sortu zuen 1946an eta 1983an hil arte zuzendu, goi maila batetara iritsiz. Jose Luis Ansorena Mirandak zuzentzen du Errenteriako Andra Mari Korala, Fernando Etxeparek Iruñeko Ametsa, Juan Erasok Elizondoko Korala, Emilio Ipinzak Gasteizko Iradier Korala, Juan Jose Gainzak Algor-tako Biotz Alai Korua, Gorka Sierrak Lekeitioko Itsas Soinua eta Leioako Korala, eta abar. Lekeitioko haurrak aipatu ditugunez, gogoratu behar-kogu dugu Dimas Sotes Orradre sortu eta zuzendu zuen Gasteizko Kontserbatorioaren Eskolania. Gure herriatik kanpo ere izan ditugu zuzendariak: Pedro Aizpurua Zalakain, Valladoliden, Luis Mallea Arejita Buenos Airesen, Pablo Colino Erroman, Jose Inazio Prieto Arrizubieta Comillasen eta Bizente Larrea Gerriko Madrilén, eta abar. Gure katedraletan ere baditugu kapel maisuak: Aurelio Sagaseta Ariztegi Iruñean eta Jose Maria Zapirain Maritxelar Donostian. Zuzendarien zerrenda hau bukatzeko ahan-tzi ezina da Luis Iruarri-zaga Agirre, Madrilén 1928an hil arte musika koralaren mundua bizkortu zuena.

### Musika-Banden zuzendariak

Bernardo Gabiola Lazpita organulari gisa aipatu dugu, baina Donostiako Banda zuzendu zuela aipatu behar da, ondoren Regino Ariz Zia izan zelarik; gerra ostean Felix Sistiagak zuzendu zuen Donostiako Banda. Gasteizko Bandaren zuzendarietatik aipagamenak Jose Eskoriatza Leze-ta eta Jose Maria Gonzalez Bastida izan dira. Bilboko Bandaren zuzendariak Jose Sainz Basabe, Jose Franco Ribate, Jesus Aranbarri Garate, Bruno Muñoz eta orain Urbano Ruiz Laorden ditugu. Jesus Aranbarri, gero, Madriléko Bandaren zuzendaria izan zen eta kontzertu bat zuzen-



Hainbat sari munduan zehar irabazi ondoren, gure pianojolerik handiena dugu Joakin Atxukarro, bakar-ka eta orkestekin kontzertuak ugari ematen ari dena.

tzen zegoelarik hil zen; haren hutsunea beste euskal zuzendari batek bete zuen, Rodrigo Santiago Majok. Tomás Aragües, Segundo Olaeta, Feliziano eta Bizente Beobide, Karmelo Llorente, Rene Zugarramurdi, Bitor Olaeta eta abar zuzendarien artean aipatu behar dira.

### Orkestra-zuzendariak

Armand Marsick izan zen Bilboko Orkestra Sinfonikoaren sortzaile eta lehen zuzendaria. Gero Jesus Aranbarri izan zen, gerra ostean, zuzendaria eta Madrilera joan zenean, Rafael Frühbeck de Burgos izendatu zuten zuzendaritzarako. Bolet, Pirfano eta beste izan dira gero zuzendariak orain-gor Urbanok Ruiz Laorden heldu arte. Jose Maria Franco Bordons eta Pablo Sorozabal Mariezkurren-ak zuzendu dituzte Madriléko orkestak; bertan hasi zen lanean Enrique Jorda Gallastegi, gero Ciudad del Cabon, Californiako San Franziskon eta Anberesen orkestra-zuzendaria izan ondoren Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, 1982an sortu, zuzentzen duena. Jabier Bello Portu da Iruñeko Santa Zezilia orkestaren zuzendaria. Karlos Ibarra, Jose Luis Salbide, Jose Luis Isasa, Paskal Barturen eta Tomas Aragües Bernard ere orkestra zuzendariak ditugu. Aragüesek Orkestra-Zuzendaritzaren katedra darama Donostiako Kontserbatorioan.

### Pianolariak

Euskal Herrian Musika-Akademiak eta Kontserbatorioak sortu orduko, Madrilén edo Parisen egiten ziren piano-ikasketak. Madrilén egin zituzten lehen ikasketak eta Parisen hobatu Genaro Vallejos eta Fabian Furundarenak. Geroago, Madrilén ikasketak bate ondoren Donostiara datoz Beltran Pagola Goya eta Franzisko Cotarelo Romanos, gure herrian lehen piano eskola sortzen dutenak. Pagolaren ikasle izan zen Angel Cabanas Erauzkin eta Cotarelorena Jose Maria Iraola. Eskola honetakoak dira geroago Jose Antonio Madina Labrada, Maria Karmen Okariz Alvarez, Juan Padros, Felix Lavilla Munarriz, Rikardo Rekejo Retegei eta Franzisko Korostola Pikabea. Piano-irakaskintzan Donostia baino atzerago dabil

Bilbo, 1920an Kontserbatorioa sortu arte ez da pianorik irakasten eta. Franzisko Fuster eta Aurelio Kastrillo dira lehen maisuak. Pilar Iturburu eta Sara Algarate Plazuelo dira lehen ikasle sari-tuak, Madrilén lortu baitzuten Piano-Sari Nazio-nala. Pilar Iturbururen alaba, Pilar Bilbao Iturbu-ru, Sevillako Kontserbatorioan piano katedratikoa dugu egunotan. Bilboko Kontserbatoriotik irten-dako beste pianulariak dira honako hauek: Rafael Castro Peña, Karlos Ibarra, Emma Jimenez, Maria Paula Torrontegi, Amaia Abasolo, Luis Angel Sarobe, Jesus Maria Gallastegi, eta abar. Baina denen artean, Joakin Atxukarro Arisketa nabar-mentzen zaigu, hainbat sari irabazi duen pianula-ria eta munduan zehar ezagutua. Gasteizen Kon-terbatorioa sortu zenean lehen piano-maisua Tomas Etxabarri Ostiz izan zen, eta geroago Luis Aranburu Martinez de San Vicente. Gas-teizko eskolatik irten-dako pianulari famatua Jose Maria San Martin izan zen.

### Bibolinistak

Cesar Figerido Gelbenzu eta Jose Antonio Huarte izan ziren gerra aurrean Donostian eta Iruñean bibolin-irakasleak. Eta Inazio Gurrutxaga Alcala izan zen Ovidoko Kontserbatorioan irak-askle. Donostiako eskolakoa izan zen Kremen-zio Galizia Arrue, tolosarra. Eta Eduardo Hernandez Asiain dugu orain Donostiako Kontserbatorioan bibolin irakaslea. Baina soinuagailu honen eskola-rik hoberena Bilbon datza, Donostian pianoa beza-la Bilbon bibolina bultzatu zuten mendearen hasie-rako Musika-Akademian eta. Sixto Osorio Hierro izan zen lehen irakaslea eta Juan Jose Vitoria eta Genaro Morales izan dira lehen garaiko bibo-linistetatik onenak. Luis Anton de la Maletak Bilbon eta Parisen egin zituen ikasketak Madriléko Orkestra Nazionalera iritsi arte. Osorioren ika-sleak dira Rafael Frühbeck eta Felix Ayo, Erroma-ko Kontserbatorioan irakasle dena.

### Biolontzelistak

Donostiako eskola izan da biolontzelistetatik onenak eman dituen: Santos Gandia Lahidal-ga, Regino Sorozabal Mariezkurrena, eta Gabriel Verkos, Bilboko Kontserbatorioan katedratikoa izango zena. Geroago Pedro Korostola Pikabea, Belén eta Nelly Agirre ere Donostian ikasitakoak dira. Baina Euskal Herrian famatuena Miarritze-ko seme bat dugu, Andre Navarra, munduan zehar irakasle izandakoa.

### Flautistak

Txistularien familietatik sortu zen Marzelino Basurko Zabaleta, Parisen ikasketak egin ondo-ren soinuari famatua. Primitibo Azpiazu Baran-dian eta Teodoro Martinez Lezea izan dira Donostiako Kontserbatorioan irakasleak. Bego-ña Agirre eta beste dira egunotan flautista estimagarriak.

### Beste soinuagailu batzu

Nikanor Zabaleta Zala da munduan zehar gehien ezagutzen den euskal soinuaria, harpa edo maniura jotzailea. Donostiara dugu musikari hau, Madrilén eta Parisen ikasketak bete zituen eta milaka kontzertu eman dituena. Eus-kadiko Orkestan harpa bakar-laria Marimi Azpia-zu Mitxelena da, Azpiazu flautistaren alaba. Mun-duan zehar gitarra jotzaile famatua oñatiar bat da, Jose Azpiazu Iriarte, Ginebrako Kontserbato-rioren irakasle; Guadalupe Azpiazu Aranguren, irakasle honen alaba ere gitarra jotzaile ezaguna da. Roberto Olabarrieta Aranburu, bizkaitarra, Iruñeko Kontserbatorioan gitarra-irakaslea da. Azke-



Nikanor Zabaleta donostiarra da gaur egun munduko maniura edo arpa jotzaile artean onenetarikoa, hiru milatik gora munduan zehar kontzertuak eman dituena.

nik, Juan Manuel Gomez de Edeta dugu tronpa eta tronpeta jotzaile eta irakaslea Donostian.


### Txistulariak

Zerrenda luze bat eman beharko genuke, baina ezagunenak ematekotan, honako hauek bereizi behar ditugu: Bonifazio Laskurain, Isidro Ansorena, Karmelo Ibarzabal, Aita Hilario Olazarán, Demetrio Garaizabal, Felix Askaso, Manuel eta Jokin Landaluze, Larrinaga aita-semeak, Bonifazio Fernandez, Atxurra anaiak, Jon Oñatibia, Santiago Garai, Polentzi Gezala, Iñaki Urtizberea, Jaber Hernandez Azkunze, eta abar. Bilbo eta Donostiako Kontserbatorioetan Txistu-katedrak sortu dira, Aitor Alarzia Amilibia eta Jose Inazio Ansorena Miner irakasleak direlarik. Albokari buruz esan behar da gutxi direla orain eresgailu hau jotzen dutenak, baina aipagarriak dira Jose Mariano Barrenetxeak egindako ikasbide eta ikerketak. Dultzainaz ere aipatu behar dira Iruñeko Lakuntza anaiak egiten ari diren ikerketak.

### Gaur eguneko musikagintza

Gure mendearen erdialdian, gerra aurreko kultur mugimenduak beharrez baretzen direnean, Europan egiten den musika berriaren bidetik doaz musikari gazteak. 1936ko gerrak hondatu du nazionalismoa eta ordurarteako musikagileek tankera berdinean jarraitzen badute ere, berriek beste bide batetik hasten dira euskal musikagintzan. Eta, beharbada, oraingo musika berriak nazional kutsurik ez daukanez, gehiago zabaltzen dira Europara.

Euskal entzuleek sortzen ari den aldakuntza nabaritzen dute 1965 inguruan, Euskal Abestien I Jaialdia antolatzen denean. Joseba Olaizolaren *Mendietan* ahotsetarako musikalan tradizionala eta Rafael Castroren *Nora?* entzuten dira saio berean; lehiaketan lehenak irabazten du saria baina jendea datorren aldakuntzarekin kontura-



Txistua da gure musikagailu nazionala. Hara hemen Arraten, 1964ean, azaldu ziren bost txistulari punterengok: Bonifazio Laskurain, Jose Maria González Bastida, Hilario Olazarán Estellakoa, Joseba Olaizola eta Isidro Ansorena.

tzen da. Aurrerantzean gero eta gehiago izango dira bide berrietatik joango diren musikagileak: Juan Cordero Castañón (Elgoibar, 1927), Joakin Pildain Araolaza (Tolosa, 1927), Lorenzo Ondarra Kintana (Bakaikoa, 1931), Rafael Castro Peña (Villarcayo, 1935), Gotzon Aulestia Txakartegi (Ondarroa, 1940), Karlos Iturralde Ara (Iruñ, 1952) eta abar. Paskual Rodríguez Aldabe (Lesaka, 1924) Iruñeko Kontserbatorioaren zuzendaria ere bide berrietatik dabil musikagintzan.

Baina euskal musikari batzu, Madrilén eta Parisen finkatuak, lehendik hasiak ziren musikagintza berriaren bideetatik, eta gure mugak gaindituak zituzten, beraien musikalanak gure herrian ezezagutuak zirelarik. Mundu berrian lehen sartzen dena Luis de Pablo Costales (Bilbo, 1930) da, 1948 inguruan. Parisen eta Londonen estre-

natzen dira bere musikalanak 1958an. Geroztik ikasketak burutzen ditu Parisen eta Berlinen eta munduan zehar ezagunak diren musikalanak egiten ditu. Gerotxoago heltzen da mundu berriara Karmelo Alonso Bernaola (Otxandio, 1929). Madrilén burutzen ditu ikasketak eta Erromako Saria irabazi ondoren, Petrassirekin egiten ditu hurrengoak. Teknika berriaren irakasle da gero Madriléko Kontserbatorioan eta orain Gasteizkoaren zuzendaria dugu. Agustin Gonzalez Azilu (Altsasu, 1929) da kanpotik ikasketak egiten ari den bat. Remachak sartu zuen bide berrietan eta Europan zehar ikasi zituen teknika berriak. *Arrano beltza* da gehien ezagutzen dugun lana. Lau garren musikaria bide berrietan Juan Antonio Larrauri Riego da, baina jaioterritik kanpo (Bilbo, 1932) ez zuen ikasketa berezirik egin, eta autodidakta dela esan dezakegu.

Gazteagoak dira Maria Luisa Ozaita Marques (Barakaldo, 1939), Felix Ibarrondo Ugarte (Oñati, 1943), Enrike Ugarte Alonso (Tolosa, 1957)



Luis de Pablo.



Karmelo Bernaola.



Agustin González Azilu.

eta beste, Euskal Herriaren izena mundu berrian finkatzen ari direnak.

## Musikaren irakaskuntza

Erromantismoarekin batera sortu zirela Musika-Akademiei ikusi dugu, mendearen erdialdian hiriburuetan udaletakoak bihurtu zirenak. Elkarte Filarmonikoak ere sortu ziren, musikaren irakaskuntza bultzatu zutenak. Geroago gerra aurrean sortu ziren hiriburuetan kontserbatorioak eta azken urteetan beste herri nagusietan ere, Udalen eta Diputazioen laguntzari esker, lehen mailako Kontserbatorioak sortzen ari dira. Baina beste antolamendu bat behar du musikaren irakaskuntzak gure herrian, aspalditik European egiten den antzerakoa lortu nahi badugu. Oinarriko heziketan beharrezko ikasketa da musika eta beste gaiak bezala eskoletan eta ikasoleetan irakatsi beharko dena beste herri aurreratuaren parean egon nahi badugu.

Bilboko Udal Akademiak 1877tik 1882arte iraun zuen. Gero Elkarte Filarmonikoak sortu zuen 1903an Bizkaiko Musika-Akademia. 1922an "Juan Krisostomo Arriaga" izeneko Bizkaiko Kontserbatorioa sortu zen, 1942an erdi mailakotzat onartua izan zena.

Donostian Udal Bandaren babesean sortu zen 1887an Udal Akademia. Euskal Herriko Adis-

kideen Elkarteak sortu zuen beste Musika-Akademia bat 1897an. Biak elkartu ziren 1912an eta 1927an Udal Kontserbatorioa izatera iritsi ziren. 1942an erdi mailakotzat onartua izan zen eta 1980an Goren Mailakoa izendatua izan zen. Hau da Euskal Herrian dagoen Unibertsital mailako Kontserbatorio bakarra.

Gasteizko Kontserbatorioa 1929an zabaldu zen. 1959an Jesus Guridi gasteiztarren izena eman zioten eta 1976an Erdi Mailakoa izendatua izan zen. 1984an egoitza berri batera iritsiko da.

Iruñeko Musika-Akademia Udalekoa egin zen 1859an. Eta Udal Akademia izan zen 1941 arte. Erdi Mailako Kontserbatorioa izendatua izan zen urte honetan. 1962an, Remacha zuzendaria zelarik, egoitza berri batera aldatu zen "Pablo Sarasate" izena hartuz.

Baionan ere Erdi Mailako Kontserbatorio bat dago.

Donostiako Kontserbatorioa Gorengo Mailara heldu arte, goi mailako ikasketak egin nahi zituztenek atzerrietako Kontserbatorioetara jo behar zuten. Orain Donostiako Kontserbatorioan burutu daitezke musika-ikasketa guztiak. Heldu zaigu, beraz, gure herriaren musika estudioak planifikatzeko sasoia.